

## HITZARMENA, ZIZUR NAGUSIKO UDALAREN ETA ZIZUR NAGUSIKO UDAL MUSIKA BANDA ELKARTEAREN ARTEKOA

Zizur Nagusian, 2020ko otsailaren 24an

### BILDUTA

Alde batetik, ZIZUR NAGUSIKO Udaleko alkate-lehendakari JON GONDÁN CABRERA jaunak, haren izen eta ordezkartzan.

Bestetik, ROSA JIMENO GUEMBE eta PATRICIA HUÉRCANOS AGUILAR andreak, ZIZUR NAGUSIKO UDAL MUSIKA BANDA ELKARTEAREN (onuraduna, hemendik aurrera) izen eta ordezkartzan (IFK: G-31783053; helbidea: Beraskoain etorbidea 10, Zizur Nagusia), haren lehendakaria eta idazkaria izanik, hurrenez hurren, eta 2020ko urtarrilaren 23an egindako biltzarretik hitzarmen hau sinatzeko eskumena dutela, zeina indarrean baitago oraindik dokumentu hau sinatu behar den honetan.

Jarduteko nahikoa gaitasun dutela aitortzen diote elkarri, eta, hari jarraikiz,


### HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikulua dio udal-aurrekontuetan modu izendunean aurreikusiak dauden dirulaguntzak zuzenean eman daitezkeen artean daudela, hitzarmenetan eta dirulaguntzak arautzeko araudian xedatutakoarekin bat, baita Zizur Nagusiko Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorrean xedatutakoarekin ere.

Zizur Nagusiko Udalaren aurrekontuak ZIZUR NAGUSIKO UDAL MUSIKA BANDA ELKARTEAREN aldeko dirulaguntza bat ematea aurreikusten duela, 2020. urtean udalerrian sustapen musikal eta kulturala eta haren ordezkartza ofiziala sustatzeko xedez.

Zizur Nagusiko Udalaren eskumenetako bat herritarren beharrak eta nahiak asetzen zuzenean laguntzen duten jarduerak sustatzea dela, hitzarmen honen xede diren jarduerak babesten, besteak beste.

Bestetik, ZIZUR NAGUSIKO UDAL MUSIKA BANDA ELKARTEAK ondoko hauek dituela xede nagusi: musikaren sustapena udalerrian, mota horretako musika-elkarteen eremuaren



barruan beti ere, eta zeregin horretan jarraitu eta hobetzea.

Bi aldeek interesa erakutsi, eta haien jarduerak hitzartzea adostu dutela baliabideak hobeki aprobetxatzeko helburu handinahiagoak planifikatu eta erdiesteari begira, eta, horretarako:

## ADOSTEN DUTE

### LEHENA.- XEDEA

Dirulaguntzaren xedea da onuradunak kultura sustatzeko jarduerak egitea eta musika klasikoa, herrikoia, garaikidea eta orokorra jotzea, baita udalerria ordezkatzeko bertaraten den ekitaldi, kontzertu eta eginkizun guztietan.

### BIGARRENA.- LOKALA ETA EGOITZA UZTEA

Zizur Nagusiko Udalak bere jabetzakoa den lokal bat utziko dio (Beraskoain etorbidea 10), zeina behar bezain egokia baita elkartearen egoitza izateko, hots, entseatzeko zein musika-tresnak eta bestelakoak utzi eta gordetzeko.

Elkartea lokala zaindu, garbitu eta behar bezala erabiltzeaz arduratuko da.

Zizur Nagusiko Udal Musika Bandarako eta haren jardueretarako baino ez da izango lokala, salbu eta udalak kontrakoa adierazten badu.


### HIRUGARRENA.- DIRULAGUNTZA

Dirulaguntzak HOGEI MILA EURO (20.000 €) urteko jotzen du, eta udalak emango ditu osorik, 1 33402 48200 Hitzarmena Zizur Nagusiko bandarekin aurrekontu-partidaren kargura.

### LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEA

Dirulaguntzaren % 75 alde aurretik ordainduko da, onuradunak dagokion eskaera, lehen hiruhilekoan zehar, Zizur Nagusiko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ondoren, urteko (uneko urterako jarduera-proiektua aurkeztu beharko da eskaerarekin batera). Ez da beharrezkoa bermerik eratzeko.

Dirulaguntzaren gainerakoa emandako laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.



## **BOSGARRENA.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**


- Onuradunak jasoko dituen funtsen helburu bakarra izango da dirulaguntza honen xedea betetzeak sortutako gastuak zein elkartearen berezko jarduerak ordaintzea.
- Emandako dirulaguntza hitzarmenean jasotako moduan justifikatzea.
- Zizur Nagusiko Udalak egiaztatzeko egin ditzakeen jarduketei men egitea, eskatutako dokumentazio eta informazio guztia emanaz.
- Hitzarmenaren esparruaren barruko programak, jarduerak eta zerbitzuak udaleko arlo edo zerbitzuekin koordinatzea.
- Elkarreak egindako jarduerari buruzko urteko memoria-txosten bat egitea; jardueretan parte hartutakoen kopurua zehaztu eta haien emaitza ebaluatuko dira han.
- Zizur Nagusiko Udala kolaboratzailea dela agertaraztea, aise ikusteko moduan, hitzarmenaren bidez diruz lagundutako jarduerak hedatzeko erabiliko diren materialetan. Hartara, elkarreari baimena ematen zaio udalaren irudi korporatiboa erabiltzeko.
- Diruz lagundutako jarduerari lotutako dirulaguntza edo sarreraren bat lortuz gero, haren berri ematea, ezagutu den unean eta, edozein kasutan, justifikazioan.
- Udal-ordenantzek euskararen eta berdintasunaren arloetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea, bai publizitatean, hedapenean eta materialetan, bai jardueren garapenean.

## **SEIGARRENA.- GASTUAREN JUSTIFIKAZIOA**

Justifikazioak Informazio hau bilduko du:

- Elkarreak egindako jarduerari buruzko memoria-txosten ebaluatzailea; jardueretan parte hartutakoak zenbatu, jarduera egin zela jaso eta helburuen betetze-maila zehaztuko dira han.
- Tributuei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela frogatzen duen ziurtagiria. Zizur Nagusiko Udalarekiko zerga-betebeharretan egunean ote dagoen ofizioz egiaztatuko da.
- Urteko gastu eta sarreraren balantze ekonomikoa.
- Fakturen eta merkataritzako trafikiko juridikoan froga balioa duten edo eraginkortasun administratiboa duten beste agiri batzuen bidez akreditatuko dira gastuak; egindako ordainketaren justifikazioa erantsiko da beti ere.
- Kontu korrontek abenduaren 31n duen saldoa akreditatzea.
- Uneko urtearen jarduera-memoria.
- Urteko inbentario oso eta eguneratua.

Dokumentuak fotokopiatu, eta konpultsatu eta adostuko ditu zerbitzu kudeatzaileak; originalak entitate onuradunari itzuliko zaizkio. Dokumentu originalak edo haien kopia konpultsatua gutxienez lau urtez geratuko dira gordailuan entitate onuradunean.



Justifikatutako ekitaldia igaro eta hurrengo urteko martxoaren 1ean amaituko da gastuaren justifikazio osoa aurkezteko epea.

Ez justifikatu bezainbeste murriztuko da ordainketa; hasieran alde zurretik ordaindutakoa justifikatuko ez balitz, dagokion zati proportzionala itzultzeko eska liteke.

### **ZAZPIGARRENA.- EMANALDIAK ETA KONPROMISOAK**

Jarraipen Batzordearekin batera adostutako kontzertu eta emanaldi guztiak egiteko konpromisoa hartzen du elkarteak; hitzarmenaren **I. eranskinean** daude urtean zehar egitekoak diren kontzertu eta emanaldiak.

Elkarteak udalarekiko hartzen dituen konpromisoak kontzertuak eta musika-emanaldiak egitea zein protokolozko ekitaldietan laguntzea da.

Protokolozko ekitaldi horiek herriko festak eta jaiak eta errotze handiko ekitaldiak dira. Egutegian alde zurretik programatuta ez dauden beste emanaldi batzuk egin beharko dituzte, dena den, baldin eta udalak egokitzat jotzen badu aurreikusi gabeko ekitaldi edo gertakizun horiek egitea, elkartearen erabilgarritasun eta inguruabarren arabera beti ere.

Zizur Nagusiko Udal Musika Banda Elkarteak konpromisoa hartzen du kontzertua edo emanaldia behar bezala, ikuspuntu artistikotik, garatzeko kide-kopuru egokia eramateko hitzarmenean bildutako emanaldi guztietara; halaber, bandaren musika-atal guztietako behar bezainbesteko musikarirekin egingo ditu kontzertu edo emanaldiak. Horrez gain, konpromisoa hartzen du kide guztiak behar bezala uniformatuta egongo direla.

### **ZORTZIGARRENA.- JARRAIPEN-BATZORDEA**


Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta ondoko kideak izango ditu: elkartearen zuzendaritza-batzordea edo haren ordezkaria, zuzendaritza artistiko eta musikala, alkatea edo haren ordezkaria eta Kultura Arloko langile teknikariak.

Hitzarmenaren betekizun-mailari eta eraginkortasunari jarraipena eta ebaluazioa egiteaz arduratuko da batzordea.

### **BEDERATZIGARRENA.- KONTRATUAREN INDARRALDIA**

Aldeek 2015eko abenduaren 9an sinatutakoa aldatu eta ordeztu du hitzarmen honek.

2020ko urtarrilaren 1etik eta 2020ko abenduaren 31ra bitartean egongo da indarrean, eta



automatikoki luzatuko da baldin eta ezein alde mugaeguna iritsi eta gutxienez hiru hilabete baino lehenago salatzen ez badu.

#### **HAMARGARRENA.- ELKARTEA DESEGITEA**

Elkarte gisa desegingo balitz, Zizur Nagusiko Udalaren Musika Banda Elkarteak konpromisoa hartzen du hitzarmenak iraun bitartean erositako material inbentariagarri osoa itzuliko diola Zizur Nagusiko Udalari; aurkeztutako kontu-itxieren gastuen xehetasunei esker jakingo da zer material izango den (musika-tresnak, partiturak, uniformeak, atrilak eta abar).

#### **HAMAIKAGARRENA.- HITZARMENA DEUSEZTATZEA**

Hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoia da hitzarmenean bertan zehaztutako klausulak ez betetzea. Hala balitz, deuseztapena aitortuko duen akordioak espresuki adieraziko ditu haren ondorioak.

#### **HAMABIGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen honek zehazten ez duen guztian, dirulaguntza-araubideari dagokionez, azaroaren 17ko Dirulaguntza Orokorrei buruzko 38/2003 Legea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Zizur Nagusiko Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantza Orokorra aplikatuko dira.

Hitzarmenak izaera administratiboa du.


Auzitan jar litezkeen kontuei dagokienez, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren auzitegiei dagokie eskumena.

Eta jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau gauzatu da, bi aletan, goiburukoan adierazitako tokian eta datan.

Alkate-lehendakaria,

Zizur Nagusiko Udalaren Musika Banda Elkarte,

Fedea ematen dut  
Idazkaria



## I. ERANSKINA


### Kontzertu-zikloak eta emanaldiak

- Kontzertu bat programazioaren barruan, otsailean edo martxoan.
- Kontzertu bat udaberriko programazioaren barruan, maiatzean.
- Kontzertu bat udako programazioaren barruan, ekaineko azken ostiralean.
- Bi musika-emanaldi, kalejiran, herriko festen asteburuan (\*)
- Kontzertu bat udazkeneko programazioaren barruan, urrian.
- Kontzertu edo emanaldi bat, agian, Santa Zezilia egunean (azaroaren 22tik hurbilen dagoen ostiralean).
- Kontzertu berezi bat Zizurko jubilatuen egunean, abenduan.

### Emanaldiak udalaren protokolozko ekitaldietan

- Erregeen kabalkadan (urtarrilak 5)
- Herriko festen protokolozko desfilean (irailak 14)
- San Andres festen protokolozko desfilean (igande goizean)

*(\*) Herriko festen emanaldiak festa-egutegiaren eta jarraipen-batzordean urte bakoitzean hartutako erabakiaren arabera egingo dira.*



## II. ERANSKINA

2020. urtean Zizur Nagusiko Udal Musika Bandaren XX. urteurrena izango baita, udalak bandaren uniforme ofizial berriaren gastuaren zati bat diruz lagunduko du, BOST MILA EURO (5.000 €), zehazki, 1 3340278200 Zizur Nagusiko bandaren uniformeak berritzeko dirulaguntza aurrekontu-partidaren kargura. Dirulaguntza hori soilik 2020. urtean emango da; beraz, ez da hurrengo urteetan emango.

Dirulaguntza kobratzeko, hura eskatu eta egindako gastua justifikatu beharko da; fakturak aurkeztu beharko dira horretarako, ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera. Edonola ere, hitzarmenak biltzen dituen betebeharrak aplikagarriak bete beharko ditu onuradunak.